

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

Zk-2819

2/1999 LEGEA, ekainaren 25ekoa, ekonomiaren, aurrekontuen eta finantzazioaren arloan 1999 urterako neurri osagarriak ezartzeari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

2/1999 LEGEA, EKAINAREN 25EKOA,
EKONOMIAREN, AURREKONTUEN
ETA FINANTZAZIOAREN ARLOAN 1999
URTERAKO NEURRI OSAGARRIAK EZARTZEARI
BURUZKOA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Hauteskundeetarako deialdia zela eta, Eusko Legebiltzarra desegin egin zenez, ezinezkoa izan zen Euskal Autonomia Erkidegoko 1999rako Aurrekontu Orokorrak Legebiltzarrari epe barruan aurkeztea, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 6.4. artikulua eta irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuaren 62. artikulua araberak. 1/1997 Legegintza Dekretuak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauetarako buruzko Legearen testu bategina onartzen du; eta 1/1994 Legegintza Dekretuak Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege xedapenen Bateratutako Testua onartzen du. Horrenbestez, horrek eragin du aipatutako irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuko IX. tituluan jasotzen den luzapen-erregimenaren marrazteaz.

Hain zuzen ere, ekonomi urtealdi bat hasterako dagozkion aurrekontu orokorrak oraindik onartu gabe baldin badaude, aurreko urtealdiko aurrekontu orokorren indarraldia luzatzeko aukera jasotzen du arau horrek. Hala ere, indarraldia luzatu ahal izateko, oso kontuan eduki behar da, nolahi ere, luzapen-erregimen orokorra erregulatzen duen araudia.

Irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuko IX. titulua xedea da aurrekontu orokorren luzapena orokorrean erregulatzea, egoera horietan sortu daitezkeen arazoak saihestuz. Erregulazio horrek nolabaiteko tartea ematen du aurrekontuak gauzatzeko, bai egiturako gastuen estaldurari dagokionez (langileen eta funtzionamenduaren gastuak), eta bai aurreko urtealdietatik

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

Nº-2819

LEY 2/1999, de 25 de junio, de medidas complementarias en materia económica, presupuestaria y financiera para el ejercicio 1999.

Se hace saber a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

LEY 2/1999, DE 25 DE JUNIO, DE MEDIDAS
COMPLEMENTARIAS EN MATERIA
ECONÓMICA, PRESUPUESTARIA
Y FINANCIERA PARA
EL EJERCICIO 1999.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La disolución del Parlamento Vasco y la consiguiente convocatoria de elecciones conllevó la imposibilidad de presentar ante dicho Parlamento el Proyecto de Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 1999 con anterioridad a la fecha que se señala en el artículo 6.4 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y en el artículo 62 del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de las Disposiciones Legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, lo que, a su vez, ha provocado la puesta en marcha del régimen de prórroga contemplado en el Título IX del referido Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre.

En efecto, dicha norma prevé el supuesto de que, al inicio de un ejercicio económico, no hubieran sido aprobados los Presupuestos Generales correspondientes, y se extiende al mismo la vigencia de la Ley de Presupuestos Generales del anterior. Tal extensión de vigencia, no obstante, debe tener lugar con observancia, en todo caso, de la normativa que regula con carácter general el régimen de prórroga.

El Título IX del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, tiene por objeto la regulación general de la prórroga de los Presupuestos Generales, evitando los problemas que pueden plantearse en estas situaciones. Dicha regulación permite un cierto margen de maniobra para la ejecución presupuestaria tanto en relación con la cobertura de los gastos de estructura (gas-

eratorritako aurrekontu-konpromisoer dagokienez, eta luzatutako urtealdian amaitu behar izan ez duten programei edo jardueri dagokienez. Baina, bestalde, erregulazioa behin-behinekoa da eta horrek esan nahi du betearazteko zurruntasun handiagoa dagoela, batez ere gastuen egoerari dagokionez. Horrek praktikan dakarren ondorioetako bat da, besteak beste, honako hauen izozketa: pentsioak, gizarte-larrialdietarako laguntzak emateko aurrekontu dotazioak, aurrekontuen kontura finantzatzaren diren erakundeetarako eta entitateetarako aurrekontu-dotazioak, hezkuntzako itunen moduluen osagaiak, eta gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerak. Beste ondorio bat da ezinezkoa dela garatzea aurreko urtealdiko aurrekontuetan aurreikusi ez diren jarduerak.

Hori horrela, kontuan hartuta tartean diren aparteko gorabeherak, eta bai atzeratu ezin diren hainbat jardura premiaz burutu beharra ere, ezinbestekoa da aurrekontu-jarduerari hainbat neurri osagarri egituratzea, Euskal Autonomia Erkidegoan hurrengo aurrekontu orokorrak onartzen dituen legea aldarrikatzen den arteko denbora-tarterako.

Aipatutako eraginetarako, beraz, lege honen xedea da luzapenak eragindako arazo batzuk konpontzea, konponbidea atzeraezina delako. Arazoak hauek dira: Eusko Legebiltzarrerako eta UPV / EHUraiko aurrekontu-dotazioa ezartzea, gizarte-larrialdietarako laguntzak emateko aurrekontu dotazioa gehitzea eta pentsioak, hezkuntza-itunen moduluen osagaiak eta gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerak eguneratzea. Lege honen xedea da, baita ere, interpretazio zehatzagoa behar duten arazoak konpontzea: laguntzak eta dirulaguntzak zuzenean ematea, eta inbertsio errealerako gastuak. Halaber, hainbat neurri hartu behar dira aurreko urtealdiko aurrekontuetan, arrazoi nabariak zirela medio, aurreikusi ez ziren jarduerak kontuan hartzeko, uneko gorabeherak eta jardura horiek burutzeko premiak hala eskatzen dutelako. Nolanahi ere, nahiz eta luzapenean egon, beharrezkoa den oreka bilatu behar da aurrekontuaren erabileraren artean, plangintza baten eta koiunturakoak ez diren neurri batzuen zerbitzuan dagoen ekonomi politikarako tresna denez, eta Legebiltzarrari zor zaion errespetuaren artean; hain zuzen ere, Legebiltzarra baita ekonomi urtealdiko gastuei aurre egiteko kredituak baimentzeko eskumena duen erakundea.

Arauaren eduki zehatzari dagokionez, honako alderdi hauek nabarmendu daitezke.

Lehenengo, sektore publikoaren ordainsariei dagokionez, nahiz eta luzapen-erregimenak beharrezkoa den estaldura eskaini ordainsariak eguneratu ahal izateko, egokiagozat jo da ordainsarien igoeraren gehieneko

tos de personal y de funcionamiento) como de los compromisos presupuestarios derivados de ejercicios anteriores y de los programas o actuaciones que no hayan debido finalizar en el ejercicio prorrogado pero se caracteriza por su provisionalidad, lo que deriva en una mayor rigidez en la ejecución, fundamentalmente, de su estado de gastos. Ello supone, en la práctica, entre otras consecuencias, la congelación de las pensiones, de las dotaciones presupuestarias destinadas a las ayudas de emergencia social y a aquellas instituciones y entidades que se financian con cargo a los presupuestos, de los componentes de los módulos de los conciertos educativos y de la cuantía del ingreso mínimo de inserción o la imposibilidad de desarrollar actuaciones cuya realización no fue prevista en los presupuestos del ejercicio anterior.

Siendo ello así, y teniendo en cuenta las circunstancias de carácter extraordinario que concurren, así como la urgente necesidad de abordar determinadas actuaciones cuya ejecución es inaplazable, resulta imprescindible articular una serie de medidas complementarias de la actuación presupuestaria durante el tiempo que medie hasta la promulgación de la Ley que apruebe los próximos Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

A los efectos mencionados, por tanto, la presente Ley persigue solventar algunos problemas ocasionados por la prórroga cuya solución se considera inaplazable (fijación de la dotación presupuestaria para el Parlamento Vasco y la UPV / EHU, ampliación de la dotación presupuestaria destinada a las ayudas de emergencia social, actualización de las pensiones, de los componentes de los módulos de los conciertos educativos y del ingreso mínimo de inserción) o que requieren una más concreta interpretación (concesión directa de ayudas y subvenciones, gastos para inversiones reales), así como adoptar determinadas medidas que permitan el desarrollo de una serie de actuaciones cuya realización, por razones obvias, no fue prevista en los presupuestos del ejercicio anterior pero que las circunstancias del momento actual y la urgencia que requiere su ejecución obligan a su consideración, intentando, no obstante, buscar el necesario equilibrio entre la utilización del presupuesto, incluso en período de prórroga, como instrumento de política económica al servicio de una planificación y de medidas no coyunturales, y el respeto a la institución parlamentaria como instancia competente para autorizar los créditos con los que afrontar los gastos del ejercicio económico.

Por lo que al concreto contenido de la norma pueden destacarse los siguientes aspectos.

En primer lugar, en materia de retribuciones del sector público, aunque el régimen de prórroga ofrezca la necesaria cobertura para proceder a su actualización, se ha considerado más oportuno proceder a la fijación del

portzentajea ezartzea, inflazioak izan duen bilakaerara egokituta. Horrekin batera, beharrezkoa den estaldura eskaini da unibertsitatekoak ez diren irakasleen ordain-sari osagarriei 1994tik 1998ra bitartean dagokien egokitzapena egiteko. Hartzeko pasiboen erregimenari dagokionez ere antzera jokatu da eta pentsio publikoak igo egin dira.

Bestalde, egoki iritzi zaio, baita ere, itunpeko ikastetxeei eusteko ekonomi moduluen osagaien urteko zenbatekoak eguneratzeari, indarrean dauden eskola-unitateen egokitzapenak estali ahal izateko, 1998-1999 ikasturterako.

Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerari dagokionez, 1998rako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 21/1997 Legearen indarraldiaren luzapena Gizarte Bazterketaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea egokitzeko beharrezkoak diren neurriak hartu dira. Eta gizarte-prestazio horren hileroko zenbatekoa ezarri da 1999. urterako. Bestalde, gizarte-larrialdietarako laguntzak emateko aurrekontu dotazioa gehitu egin da.

Dirulaguntzetarako gastuen baimenen luzapen-erregimenari dagokionez, Eusko Legebiltzarrerako eta Euskal Herriko Unibertsitaterako aurrekontu-dotazioak ezarri dira, 1999. urteko jarduera finantzatu ahal izateko. Jaurilaritzaren Kontseiluak eskumena du luzapen-erregimenean laguntzak eta dirulaguntzak zuzenean emateko, arlo honetan indarrean dagoen lege-erregimenearekin bat. Azkenik, beharrezkoa den gaikuntza eman zaio diruz lagundu daitezkeen programak erregulatzen dituzten xedapenak eta hitzarmenak aldatu ahal izateko, baldin eta diruz lagundu daitezkeen programa horiek mailegu-eragiketen finantza-zamak murriztearen bitartez gauzatzeko badira, interes-motaren egungo bilakaerara egokitzeko. Gaikuntza horrek ez dakar berarekin gehiago gastatzeko baimenik.

Inbertsio errealetarako gastuen baimenen luzapen-erregimenari dagokionez, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege xedapenen Bateriautako Testua onartzen duen irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuaren 128. artikuluko e) idatz-zatiaren edukia zehazten eta mugatzen da. Izan ere, luzapen horretan sartzen dira zenbatekoa, batetik, eta aurreko ekitaldiko urtekako banaketa, bestetik; beti ere, gastuak baimentzea, jardueren ezaugarriak direla eta, urte horretan amaitu behar ez ziren jarduerak finantzatzeko ordainketa-kredituei edo konpromisozko kredituei dagokienean.

porcentaje máximo de incremento de las mismas adecuándolo a la evolución experimentada por la inflación a la vez que se otorga la cobertura necesaria para las adecuaciones en las retribuciones complementarias del personal docente no universitario correspondientes a los ejercicios 1994 a 1998. En términos similares, en cuanto al régimen de haberes pasivos, se procede a un incremento de las pensiones públicas.

Por otro lado, también se ha estimado oportuno proceder a una actualización de los importes anuales de los componentes de los módulos económicos de sostenimiento de los centros educativos concertados al objeto de dar cobertura a las adecuaciones de las unidades escolares vigentes para el curso académico 1998-1999.

En relación con el ingreso mínimo de inserción, se adoptan las medidas necesarias para acomodar la extensión de la vigencia de la Ley 21/1997, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 1998, a la Ley 12/1998, de 22 de mayo, contra la Exclusión Social, fijando la cuantía mensual de dicha prestación social para el ejercicio 1999. Asimismo, se amplía la dotación presupuestaria destinada a las ayudas de emergencia social.

Respecto al régimen de prórroga de las autorizaciones de gastos para subvenciones se fijan las dotaciones presupuestarias destinadas al Parlamento Vasco y a la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, con objeto de hacer frente a la financiación de su actividad durante el ejercicio 1999, se faculta al Consejo de Gobierno durante el régimen de prórroga para la concesión directa de ayudas y subvenciones de conformidad al régimen legal vigente en esta materia y, por último, se concede la habilitación necesaria para proceder a la modificación de las disposiciones y convenios que regulan programas subvencionales que se instrumentan mediante la modalidad de reducir la carga financiera de operaciones de préstamo para su adecuación a la evolución actual de los tipos de interés, habilitación que no lleva aparejada una mayor autorización de gasto.

En cuanto al régimen de prórroga de las autorizaciones de gastos para inversiones reales, se precisa y delimita el contenido del apartado e) del artículo 128 del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, en el sentido de entender que dicha prórroga comprende tanto a los importes como a la distribución por anualidades del ejercicio anterior, siempre que tales autorizaciones de gastos correspondan a créditos de pago o de compromiso que financien actuaciones que, por su naturaleza, no debieron finalizar en dicho ejercicio.

Azkenik, koiunturako eta sustapeneko hainbat neurri hartu dira luzatutako aurrekontuaren gastuen egonera osatzeko, aurreko urtealdiko aurrekontuetan aurreikusi ez ziren hainbat jarduera garatu ahal izateko.

Lehenik eta behin, kontuan hartuta «Euskadi XXI» Azpiegituren Erakundearteko Plana aurreko urtealdian amaitu zela, egoki iritzi zaio 1999an mugitzeari eta aparteko fondo bat sortzeari, azpiegiturei buruzko inbertsio-proiektuak finantzatu ahal izateko, Legearen eranskinean adierazten den banaketaren arabera. Horrek ez du alde batera uzten, hala ere, Ekonomiako eta Gizarteazpiegituren Erakundearteko Plan berri bat gauzatu ahal izateko aukera.

Bigarrenez, Industriadarako eta Ekonomi Sustapenerako Erakundearteko Plana gauzatzen ez den bitartean, Jaurlaritzaren Kontseiluak ekonomi sustapena, lurraldeen arteko oreka eta, bereziki, gune kaltetuenen garapena laguntzeko jarduerak sustatzeko ezar ditzakeen neurriak finantzatzeko beharrezkoa den gastua baimendu da.

Hirugarrenik eta azkenik, lan-antolaketaren modernizazioa bultzatu nahi da, formula malguekin; eta Eneplegua eta Prestakuntza Sustatzeko Erakundearteko Plana gauzatzen ez den bitartean, arlo horretako baliabideak eta herri-politikak integratzeko eta koordinatzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluak enpleguaren aldeko jarduerak sustatzeko egoki iritzi dituen neurriak finantzatzeko beharrezkoa den gastua baimentzea aurreikusten da, hala nola, errelebu-kontratua, aparteko orduen murrizketa eta ezabapena, edo antzeko beste batzuk.

Araua osatzeko, bertan jasotzen diren neurriak betearazteko beharrezkoa den finantzaketa aurreikusten da. Finantzaketa hori diruzaintzako gaineratikoen kontura egingo da, eta baita luzapen-epetan aportazioen erregimenaren aplikaziotik eratorritako diru-sarreraren kontura ere. Hori horrela egingo da Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege xedapenen Bateratutako Testua onartzen duen irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuko 133. artikularen arabera; eta Herri Finantzen Euskal Kontseiluak horri buruz 1998ko urriaren 5ean aurtengo urterako hartutako Erabakiaren arabera.

1. artikulua.– Xedea.

Lege honen xedea hainbat xedapen osagarri ezartzea da Euskal Autonomia Erkidegoko 1998rako aurrekontu orokorren luzapen-erregimenari, 1999. urterako; baita abenduaren 23ko 21/1997 Legeari ere; lege horrek

Por último, se adoptan determinadas medidas coyunturales y de promoción que complementan el estado de gastos del presupuesto prorrogado con objeto de permitir el desarrollo de determinadas actuaciones cuya realización no fue prevista en los presupuestos del ejercicio anterior.

En primer lugar, y teniendo en cuenta la finalización del pasado ejercicio del Plan Interinstitucional de Infraestructuras «Euskadi XXI», se ha estimado conveniente, sin perjuicio de que se proceda a la formalización de un nuevo Plan Interinstitucional de Infraestructuras Económicas y Sociales, su deslizamiento durante el ejercicio 1999 mediante la constitución de un Fondo Extraordinario destinado a la financiación de proyectos de inversión en infraestructuras, de conformidad a la distribución que se señala en el Anexo de la Ley.

En segundo lugar, en tanto en cuanto se proceda a la formalización de un Plan Interinstitucional en materia de Industria y Promoción Económica, se incluye la autorización de gasto necesaria para la financiación de las medidas que el Consejo de Gobierno establezca para el fomento de actuaciones destinadas a favorecer el equilibrio interterritorial y, particularmente, el desarrollo de las áreas especialmente más desfavorecidas.

En tercer y último lugar, con el fin de apoyar la modernización de la organización del trabajo con fórmulas flexibles y en tanto en cuanto se proceda a la formalización de un Plan Interinstitucional para el fomento del Empleo y la Formación con el objetivo de integrar y coordinar los recursos y políticas públicas en esta materia, se prevé la autorización de gasto necesaria para la financiación de aquellas medidas que el Consejo de Gobierno estime oportunas para el fomento de actuaciones en favor del empleo tales como el contrato de relevo, la reducción y supresión de horas extraordinarias u otras de similar naturaleza.

La norma se completa con la previsión de la financiación necesaria para la ejecución de las medidas contempladas en la misma. Esta financiación se realizará con cargo a remanentes de tesorería así como a los ingresos derivados de la aplicación del régimen de aportaciones durante el período de prórroga, de conformidad al artículo 133 del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, y al Acuerdo adoptado al respecto el 5 de octubre de 1998 por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas para el presente ejercicio.

Artículo 1.– Objeto.

La presente Ley tiene por objeto el establecimiento de una serie de disposiciones complementarias al régimen de prórroga de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 1998 durante

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen ditu 1998. urterako eta indarraldia luzatu egiten du 1999. urtera.

2. artikulua.– Ordainsarien erregimena eta hartze-ko pasiboak.

1.– Irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuaren (Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege xedapenen Bateratutako Testua onartzen baitu) 129. artikuluan ezarritakoaren eraginetarako, abenduaren 23ko 21/1997 Legearen 18. artikuluko 1. eta 9. paragrafoetan eta 19. artikuluan adierazten diren langileentzako ordainsarien igoera-portzentajea gehenez ere %1,8tako izango da, 1998rako ezarritako ordainsariei dagokienez. Gobernuak aplikatuko ditu igoera horiek.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitako portzentaje berbera aplikatuko du Gobernuak, gehenez ere, 1998rako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 21/1997 Legearen 18. artikuluko 6. paragrafoan adierazten diren langileen soldata-kostuaren igoerarako, 1998rako ezarritakoari dagokionez.

3.– Lehenengo paragrafoan ezarritakoak ez ditu kalte-tuko unibertsitatekoak ez diren irakasleen ordainsari osagarrien egokitzapenak, 1994. urtetik 1998.era dagozkienak, Jaurlaritzaren Kontseiluak xedatu ditzakeen baldintzetan eta hitzetan.

4.– Maiatzaren 13ko 1/1986 Legegintza Dekretua aplikatzearen ondorioz eskatutako gabealdiak bete ditzuten langileei aitortutako hartze-ko pasiboak %1,8tako portzentajea igoko dira eta igoera horrek 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina.

3. artikulua.– Itunpeko hezkuntza-ikastetxei eus-tekko ekonomi modulua

Hezkuntza-maila anitzetako itunpeko ikastetxeetako eskola-unitate bakoitzeko ekonomi moduluen osagaien urteko kopuruak 1998ko abenduaren 31n, %1,8tako igoera izango dute 1999rako, irakasleei 1998. urteari dagokion soldata-berdinketa gauzatu ondoren, eta 1998-99 ikasturterako indarrean dauden eskola-unitateen egokitzapenak egin ondoren.

4. artikulua.– Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera eta gizarte-larrialdietarako laguntzak.

1.– Pertsona bakar batez osatutako bizikidetzako ekonomi unitate bereizi baterako gizarteratzeko gutxie-

el ejercicio 1999, así como a la Ley 21/1997, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 1998, que extiende su vigencia al ejercicio 1999.

Artículo 2.– Régimen de retribuciones y haberes pasivos.

1.– A los efectos de lo dispuesto en el artículo 129 del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, el porcentaje máximo de incremento de las retribuciones del personal al que se refieren los párrafos 1 y 9 del artículo 18 y el artículo 19 de la Ley 21/1997, de 23 de diciembre, a aplicar por el Gobierno se situará en el 1,8% con respecto a las retribuciones establecidas en el año 1998.

2.– El mismo porcentaje señalado en el párrafo anterior se aplicará por el Gobierno como límite máximo de crecimiento de la masa salarial del personal al que se refiere el párrafo 6 del artículo 18 de la Ley 21/1997, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 1998, con respecto a la establecida en 1998.

3.– Lo dispuesto en el párrafo 1 deberá entenderse sin perjuicio de las adecuaciones en las retribuciones complementarias del personal docente no universitario correspondientes a los ejercicios 1994 a 1998 con la extensión y en los términos que disponga el Consejo de Gobierno.

4.– Los haberes pasivos reconocidos en aplicación del Decreto Legislativo 1/1986, de 13 de mayo, por el personal que hubiere cubierto los periodos de carencia exigidos, se incrementarán con efecto desde el 1 de enero de 1999 en un porcentaje del uno coma ocho por ciento (1,8%).

Artículo 3.– Módulo económico de sostenimiento de los centros educativos concertados.

Los importes anuales a 31 de diciembre de 1998 de los componentes de los módulos económicos por unidad escolar en los centros concertados de los distintos niveles educativos experimentarán para el ejercicio 1999 unos incrementos consistentes en una subida del 1,8% una vez incorporada la equiparación retributiva del personal docente correspondiente a 1998 y realizadas las adecuaciones de las unidades escolares vigentes para el curso académico 1998-1999.

Artículo 4.– Ingreso Mínimo de Inserción y Ayudas de Emergencia Social.

1.– La cuantía mensual del ingreso mínimo de inserción para una unidad económica de convivencia in-

neko diru-sarreraren hileroko zenbatekoa, Gizarte Bazterketaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legean egituratzen den modura, 46.150 pezetakoa (277,37 euro) izango da, 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera.

2.- Bizikidetzako ekonomi unitate berezia pertsona bat baino gehiagoz osatuta dagoenean, aurreko kopuruari kopuruaren beraren 0,3 batuko zaio onuradunarekin bizi den lehenengo kidearentzat; 0,2 bigarren, hirugarren eta laugarren kideentzat; eta 0,1 gainerako kideentzat.

3.- Gizarte-larrialdietarako laguntzak emateko 1999 ekitaldirako izendatu den aurrekontu dotazioa 2.000.000.000 pezetakoa da (12.020.242,09 euro).

5. artikulua. - Eskualdatzeko eta dirulaguntzetarako gastuen luzapen-erregimena.

1.- Eusko Legebiltzarrak 2.914 milioi pezetako aurrekontuko dotazioa ezarriko du 1999. urterako (17.513.492,72 euro).

2.- Euskal Autonomia Erkidegoak Euskal Herriko Unibertsitateari eman beharreko aurrekontuko dotazioa 1999. urterako 24.209.860.000 pezetakoa izango da (145.504.189,05 euro). Kontzeptu hauetan banakatu-ko da dotazioa:

- Dirulaguntza arrunta: 22.000.000.000 pezeta (132.222.662,96 euro).

- Kontratu-programak gauzatzeko kredituetarako: 500.000.000 pezeta (3.005.060,52 euro).

- Inbertsio eta azpiegituretarako urte anitzeko programen kredituetarako: 1.709.860.000 pezeta (10.276.465,57 euro).

3.- Jaurlaritzaren Kontseiluak 1999. urtean zehar dirulaguntzak eman ahal izango ditu azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuko 49.7. artikuluan jasotzen den hitzetan; legegintza dekretu horrek Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen tes-tu bategina onartzen du.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko 1998rako Aurrekontu Orokorren 1999rako luzapen-erregimenak indarrean jarraitzen duen bitartean, diruz lagundu daitezkeen programen interes-moten egungo bilakaera egokitu ahal izango da; beti ere, mailegu-eragiketen finan-za-zamaren murrizketaren bitartez egiten denean. Era-gin horietarako, dagozkion xedapenak eta hitzarmenak aldatu ahal izango dira. Beharrezko arau erregulatzai-leak eman ahal izango dira, halaber, aurreko urteko la-guntzak egokitu ahal izateko Euskal Autonomia Erki-degoko Administrazioari lotuta dauden bestelako entitate publikoek izenpetutako hitzarmenetara

dependiente constituida por una sola persona, tal y como se configura en la Ley 12/1998, de 22 de mayo, contra la Exclusión Social, queda fijada con efecto desde 1 de enero de 1999 en 46.150 pesetas (277,37 euros).

2.- Cuando la unidad económica de convivencia independiente esté constituida por más de una persona, a la cuantía anterior se le sumará un 0,3 de la misma por el primer miembro que conviva con el beneficiario, un 0,2 por el segundo, tercero y cuarto miembro que convivan con los anteriores, y un 0,1 para cada uno de los restantes.

3.- La dotación presupuestaria para el ejercicio 1999 destinada a las Ayudas de Emergencia Social queda establecida en 2.000.000.000 de pesetas (12.020.242,09 euros).

Artículo 5. - Régimen de prórroga de los gastos para transferencias y subvenciones.

1.- La dotación presupuestaria del Parlamento Vasco para el ejercicio 1999 queda establecida en la cantidad de 2.914 millones de pesetas (17.513.492,72 euros).

2.- La dotación presupuestaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco a la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea para el ejercicio 1999 se fija en la cantidad de 24.209.860.000 pesetas (145.504.189,05 euros), que se desglosa en los siguientes conceptos:

- Subvención ordinaria por importe de 22.000.000.000 pesetas (132.222.662,96 euros).

- Créditos para la ejecución de contratos-programa por importe de 500.000.000 pesetas (3.005.060,52 euros).

- Créditos para dotar el programa plurianual de inversión e infraestructuras por importe de 1.709.860.000 pesetas (10.276.465,57 euros).

3.- Durante el ejercicio 1999 el Consejo de Gobierno podrá conceder subvenciones en los términos señalados por el artículo 49.7 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

4.- En tanto en cuanto siga vigente el régimen de prórroga de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 1998 durante el ejercicio 1999, se podrá proceder a la adecuación a la evolución actual de los tipos de interés de los programas subvencionales que se instrumentan mediante la modalidad de reducir la carga financiera de operaciones de préstamo mediante la modificación, a estos efectos, de las disposiciones y convenios correspondientes. Igualmente, se podrán dictar las normas reguladoras necesarias para adecuar las líneas de ayudas del ejercicio precedente a los Convenios suscritos por otras entidades públicas a los que se adhiera la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

6. artikulua. – Inbertsio errealetarako gastuen luzapen-erregimena.

Euskal Autonomia Erkidegoko 1998rako Aurrekontu Orokorren 1999rako luzapen-erregimenak indarrean jarraitzen duen bitartean, eta irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuaren (Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege xedapenen Bate-ratutako Testua onartzen baitu) 128 e) artikuluan ezarritakoaren eraginetarako, inbertsio errealetarako gastuen baimenak luzatu egin direla ulertuko da, aurreko urteko kopuru berberetan eta urtekako banaketa berean; beti ere, jardueren ezaugarriak direla eta urte horretan amaitu behar ez ziren ordainketa-kredituei edo konpromisozko kredituei dagokienean.

7. artikulua. – Koiunturako eta sustapeneko neurriak.

1.– 1999. urtean, Ekonomiako eta Gizarteko Azpiegituren Erakundearteko Plan berria gauzatzen ez den bitartean, Gobernuak «Euskadi XXI» Azpiegituren Erakundearteko Plana mugituko du eta inbertsio bereziak egin ahal izango ditu, hurrengo paragrafoetan adierazten den modura.

Horretarako, aparteko fondoa eratuko da hainbat azpiegituren inbertsio-proiektuak finantzatzeko: garraioa, gizartea, telekomunikazioak, ingurugiroa eta hiri-berrikuntza. Finantzaketa horiek hitzarmen bidez gauzatu ahal izango dira beste herri-administrazio batzuekin. Hala ere, horrek ez du kaltetuko luzapen-erregimenean aipatutako planeko konpromisozko aurrekontuetatik eratortzen diren jarduerekin segi ahal izatea.

Aparteko fondoaren hasierako dotazioa 10.000 milioi pezatakoa izango da (60.101.210,44 euro). Lege honen eranskinean azaltzen da dotazio horren banakapen desagregatua.

2.– Industriarako eta Ekonomi Sustapenerako erakundearteko Plana gauzatzen ez den bitartean, 3.000 milioi pezetako (18.030.363,13 euro) kreditua emango da, Jaurlaritzaren Kontseiluak ekonomi sustapena, lurraldeen arteko oreka eta gune kaltetuenean garapena laguntzeko jarduerak sustatzeko ezar ditzakeen neurriak finantzatzeko.

3.– Enplegua eta Prestakuntza Sustatzeko Erakundearteko Plana gauzatzen ez den bitartean, 2.500 milioi pezetako (15.025.302,61 euro) kreditua emango da, Jaurlaritzaren Kontseiluak enpleguaren aldeko jarduerak sustatzeko ezar ditzakeen neurriak finantzatzeko; bereziki, langileak errelebatzeko edo ordezkatzeko diren kontratazioak, eta baita aparteko orduak murrizteko eta ezabatzekeo direnak ere.

Artículo 6. – Régimen de prórroga de los gastos para inversiones reales.

En tanto en cuanto siga vigente el régimen de prórroga de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 1998 durante el ejercicio 1999, a los efectos de lo establecido en el artículo 128.e) del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, las autorizaciones de gastos para inversiones reales se entenderán prorrogadas en los mismos importes y con la misma distribución por anualidades del ejercicio anterior, siempre que correspondan a créditos de pago o de compromiso que financien actuaciones que, por su naturaleza, no debieron finalizar en dicho ejercicio.

Artículo 7. – Medidas coyunturales y de promoción.

1.– Durante el ejercicio 1999, y en tanto en cuanto se proceda a la formalización de un nuevo Plan Interinstitucional de Infraestructuras Económicas y Sociales, el Gobierno procederá al deslizamiento del Plan Interinstitucional de Infraestructuras «Euskadi XXI» y podrá realizar inversiones especiales en los términos de los párrafos siguientes.

A tales efectos, sin perjuicio de la continuación durante el régimen de prórroga de las actuaciones derivadas de los compromisos presupuestarios del referido Plan, se constituirá un Fondo Extraordinario destinado a la financiación de proyectos de inversión en infraestructuras de transportes, sociales, de telecomunicaciones, medioambientales y de renovación y regeneración urbana, que se podrá articular mediante convenios con otras Administraciones Públicas.

La dotación inicial de dicho Fondo Extraordinario ascenderá a la cantidad total de 10.000 millones de pesetas (60.101.210,44 euros), con el desglose desagregado que se contiene en el anexo de la presente Ley.

2.– En tanto en cuanto se proceda a la formalización de un Plan Interinstitucional en materia de Industria y Promoción Económica, se concede un crédito de 3.000 millones de pesetas (18.030.363,13 euros) para la financiación de las medidas que el Consejo de Gobierno establezca para el fomento de actuaciones destinadas a favorecer la promoción económica, el equilibrio interterritorial y el desarrollo de las áreas especialmente más desfavorecidas.

3.– En tanto en cuanto se proceda a la formalización de un Plan Interinstitucional para el fomento del Empleo y la Formación, se concede un crédito de 2.500 millones de pesetas (15.025.302,61 euros) para la financiación de las medidas que el Consejo de Gobierno establezca para el fomento de actuaciones en favor del empleo y, particularmente, de aquellas contrataciones destinadas al relevo o la sustitución de trabajadores, así como a la reducción y supresión de horas extraordinarias.

8. artikulua. – Finantzaketa.

Lege honetan jasotako neurrien finantzaketa irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuko 133. artikulua-ren arabera egingo da. Legegintza dekretu horrek Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege xedapenen Bateratutako Testua onartzen du. Eta, hala egokituz gero, diruzaintzako gaineratikoarekin egingo da.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

1.– Jaurlaritzaren Kontseiluak lege honetako 7. artikulutik eratorritako programetan aurretik kontsignatutako kredituak aldatu eta urteka banatu ahal izango ditu, gastuaren premiak hala eskatzen duenean eta baimendutako kreditu osoa gainditzen ez duenean; horretarako, baimendu ahal izango ditu dagozkion konpromisozko kredituak.

2.– Xedapen honen babesean gauzatutako eragiketak Legebiltzarrari azaldu beharko zaizkio.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. – Baimena.

Jaurlaritzak baimena du lege honetan aurreikusten den guztia garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak emateko.

Bigarrena. – Indarrean jartzea-

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Beraz, lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, mila bederatzehun eta laurogeita hemeretziko ekainaren 25ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Artículo 8. – Financiación.

La financiación de las medidas contempladas en la presente Ley se realizará de conformidad al artículo 133 del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, y, en su caso, con cargo a remanentes de tesorería.

DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA

1.– El Consejo de Gobierno, cuando la necesidad del gasto así lo demande y siempre que no se sobrepase el total del crédito autorizado, podrá proceder a la modificación y distribución por anualidades de los créditos consignados previamente en aquellos programas derivados del artículo 7 de la presente Ley, pudiendo autorizar, a estos efectos, los correspondientes créditos de compromiso.

2.– De las operaciones realizadas al amparo de la presente disposición se dará cuenta al Parlamento.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. – Autorización.

Se autoriza al Gobierno para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de cuanto se prevé en la presente Ley.

Segunda. – Entrada en vigor.

La presente Ley entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dada en Vitoria-Gasteiz, a 25 de junio de mil novecientos noventa y nueve.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

ERANSKINA
INBERTSIOEN ETA KAPITAL GASTUEN ALDI BATERAKO PLANA
(Milioika pezetatan)

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEAK ETA IKERKETA

- | | | |
|---|-----|-------|
| • Ikastetxeetako Obrak | 500 | |
| • Lanbide Heziketari buruzko Euskal Plana | 500 | 1.000 |

HERRIZAINGOA

- | | | |
|--|-----|-------|
| • Makineria eta komunikazio instalazioak | 640 | |
| • Informazioa prozesatzeko ekipoak | 360 | 1.000 |

OSASUNA

- | | | |
|---|--|-------|
| • Osakidetzako ospitaleetako obrak eta hornikuntzak | | 1.000 |
|---|--|-------|

KULTURA

- | | | |
|--|-----|-------|
| • EITB | | |
| EUSKALTEL, S.A.ren kapital-gehikuntza | 223 | |
| Iurretako zentro emisorearen handitzea | 100 | |
| Miramongo ekoizpen zentroaren handitzea | 160 | |
| Irrati-telebistaren digitalizazioa | 215 | |
| Unitate mugikorak | 427 | |
| Informatika | 75 | |
| ETBren korrespontsaliak | 80 | |
| • SHEE/IVEF | 40 | |
| • KULTURA ONDAREA | 110 | |
| • Hizkuntza Politikako garapen informatikoak | 150 | 1.600 |

LURRALDE ANTOLAMENDUA, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIROA

- | | | |
|-------------------------------------|-------|-------|
| • Etxebizitzen eraikuntza | 1.500 | |
| • Lurzoruaren eskurapena | 500 | |
| • IHOBE, S.A.ren kapital-gehikuntza | 500 | 2.500 |

GARRAIOAK ETA HERRILANAK

- | | | |
|-------------------------------------|--|-------|
| • Bilbaoko Hiri Metroaren II. linea | | 2.200 |
|-------------------------------------|--|-------|

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA

- | | | |
|---|--|-----|
| □ Nekazaritzako elikagaien transformazioan egindako inbertsioak | | 700 |
|---|--|-----|

GUZTIRA

10.000

ANEXO
PLAN EVENTUAL DE INVERSIONES Y GASTOS DE CAPITAL
(Millones de Pesetas)

EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

•	Obras en centros escolares	500	
•	Plan Vasco Formación Profesional	500	1.000

INTERIOR

•	Maquinaria e instalaciones de comunicaciones	640	
•	Equipos para proceso información	360	1.000

SANIDAD

•	Obras y equipamiento de hospitales de Osakidetza		1.000
---	--	--	-------

CULTURA

•	EITB		
	Ampliación capital EUSKALTEL, S.A.	223	
	Ampliación centro emisor de Iurreta	100	
	Ampliación centro producción Miramón	160	
	Digitalización radio-televisión	215	
	Unidades móviles	427	
	Informática	75	
	Corresponsalías ETB	80	
•	IVEF	40	
•	PATRIMONIO CULTURAL	110	
•	Desarrollos informáticos Política Lingüística	150	1.600

ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

•	Construcción de viviendas	1.500	
•	Compra de suelo	500	
•	Ampliación de capital de IHOBE, S.A.	500	2.500

TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

•	Línea II F.M. Bilbao		2.200
---	----------------------	--	-------

AGRICULTURA Y PESCA

•	Fomento de inversiones de transformación agroalimentaria		700
---	--	--	-----

	TOTAL		10.000
--	-------	--	--------